



2012ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Elgoibarko Udalak Ongarri argazkilari elkartearen laguntzaz Elgoibarko argazki lehiaketa antolatu du “Elgoibar” lemapean. Helburua 2012 urteko egutegia osatuko duten argazkiak aukeratzea da. Edozein zaletuk parte har dezake lehiaketa horretan, eta lanak urriaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira.

Lehiaketaren oinarriak:

1. **Partehartzaileak:** Elgoibarren erroldatuta dagoen edozein argazkizalek parte har dezake. Lehiakide bakoitzak, gehienez ere, hiru argazki aurkez ditzake.
2. **Helburua:** 2012ko Elgoibarko Udalaren egutegia egitea.
3. **Gaia:** ELGOIBAR (lekuak, txokoak, paisaiak, jendea, jaiak, ohiturak...). Ez dira onartuko Elgoibarri erreferentziarik egiten ez dioten argazkiak, adibidez, loreak, animaliak, ferietako produktuak..., hau da, edonongoak izan daitezkeen argazkiak, herriaren identifikaziorako inolako argibiderik ematen ez dutenak.
4. **Formatoa:** Bi aukera daude,
 - a. Paper fotografikoan, koloretan edo zuri-beltzean, 13 X 18 zm neurrian eta formatu horizontalean.
 - b. Argazki digitala izanez gero, CD batean edo emailez (gutxieneko formatu digitala 2 megakoa izan behar da, 2 megatik beherako artxiiboak ez dira onartuko, eta gutxieneko erresoluzioa 150 ppp)
5. **Sariak:** Udalak eta Ongarrik hamabi argazki aukeratuko dituzte egutegian jartzeko eta 65 euroekin sarituko dute aukeratutako argazkia. Argazkiaren kalitateaz gain, egutegiari koherentzia eta gorputza emateko irizpideak ere hartuko dira kontutan. Argazkiak Udalaren 2012ko egutegian azalduko dira.
6. **Saritutako argazkien erabilera:** Elgoibarko Udalaren 2012ko egutegian. Gainera, argazki lehiaketara aurkeztutako argazkiak Udalaren esku geratuko dira eta aurrerantzean atera ditzakeen egutegi, foileto eta abarretan erabili ahal izango ditu, beti ere egilearen izena jarritz.
7. **Lanen aurkezpena:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:
 - a. Argazkiak itxitako gutunazalean eta honako izenburuarekin “**Elgoibarko egutegia**” **Argazki Lehiaketa** aurkeztuko dira. Barruan egilearen datuak jarriko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta argazkiaren izenburua eta data). Helbidea: Kultur Etxea (Euskara Saila), Nafarroa plaza 3, 20870 Elgoibar.
 - b. Emailez, euskara@elgoibar.org helbidera bidalita. Hemen ere aurreko datu guztiak eman beharko dira. Partehartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua dagoela jakinarazteko.
8. **Epea:** 2011ko urriaren 17ra arte izango da.
9. **Epaimahaia:** Udaleko eta Ongarri argazkilari elkarteko ordezkariak osatuko dute.